

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

329/2017 Foru Agindua, irailaren 28koa, dirulaguntzak ematen dizkiena Arabako toki erakundeei ondasunen inbentarioak egiteko

Maiatzaren 10eko 171/2017 Foru Aginduaren bidez onarpena eman zitzaien Arabako toki erakundeei ondasunen inbentarioak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duten deialdiari eta oinarriei.

2017ko maiatzaren 26ko ALHAOn argitaratu ziren oinarriak, eta hogeita hamar eguneko epea jarri zen eskaerak aurkezteko. Eskaera guztiak epe barruan aurkeztu ziren, eta dirulaguntza eskatu duten toki erakundeek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Deialdia 50.000,00 euroekin hornitu zen, eta kontzeju bakoitzeko, gehienez ere, 7.500 euro emango dira guztira.

Horiek horrela, balorazio batzordeko kideen esku oinarriak eta eskaerak jarri ziren, eta eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren batzorde horrek txostena egin zuen, bertan jaso zuelarik bere ebaluazioa eta erakunde onuradunen lehentasun ordena.

Deialdiren zortzigarren oinarri arauko bosgarren puntuaren arabera, behin eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebatziko ditu.

Lehen adierazitakoa oinarri eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntzak ematea foru agindu honen I. eranskinean zerrendatutako toki erakundeei ondasunen inbentarioak egiteko, eta horretarako, erakunde onuradun bakoitzarentzat eranskin horretan agertzen den kopurua emango zaie.

Bigarrena. Dirulaguntza ukatzea foru agindu honen II. eranskinean agertzen diren gainerako toki erakundeei, aurrekontu esleipenik izan ez dutelako.

Hirugarrena. Aurrerakin edo konturako entrega gisa ordaintzea toki erakundeak kasuan kasuko kontratua esleitzerakoan emandako dirulaguntzaren guztirakoa.

Laugarrena. Lana burutzeko epea 2018ko irailaren 30ean bukatuko da. Lan hori ez bada burutzen epe horretan, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da; hain zuzen ere, ordura arte gauzatu ez den lanari dagokion zatia.

Bosgarrena. Dirulaguntza justifikatzeko epea, gehienez ere, 2018ko urriaren 31n bukatuko da. Kontratua, fakturak eta kontratuak eragindako ordainketak aurkeztuko dira; baita jabetza erregistroan egindako inskripzioen eta zuzenketen gainean erakundeak egindako egiaztagiria ere.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 28a

*Deputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*
MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ

I. eranskina - Emandako dirulaguntzak

KONTZEJUA	AURREKONTUA (BEZA BARNE)	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	OHARRAK
ARETXABALETA	9.075,00	7.260,00	
SARRIA	7.949,70	6.359,76	
MARGARITA	6.703,40	5.362,72	
CARANCA Y MIOMA	7.834,75	6.267,80	
ILARDUIA	8.345,75	6.676,60	
MAEZTU	7.753,75	6.203,00	
LEGARDA	9.075,00	7.260,00	
EGINO	6.493,75	4.610,12	Deialdikoa agortu arte emandakoa

II. eranskina - Aurrekontu esleipenik ez izateagatik ukatutako dirulaguntzak

KONTZEJUA	AURREKONTUA (BEZA BARNE)	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	OHARRAK
ESPEJO	12.402,50		
VILLANUEVA DE VALDEGOVÍA	9.268,60		
QUINTANILLA	4.446,75		
MANZANOS	9.075,00		
AMÁRITA	6.334,35		
TROKONIZ	10.014,50		
AZILU	10.014,50		
ARRIETA	10.014,50		
RIBABELLOSA	9.075,00		
GAZEO	10.014,50		
GUINEA	4.235,00		
TUESTA	9.329,10		
CAICEDO-SOPEÑA	11.313,50		
GAUNA	10.014,50		
OTOGOEN	9.075,00		
BARRIO	5.989,50		
DOMAIKIA	9.280,70		
LANGARIKA	10.014,50		
ULLÍBARRI-ARRAZUA	5.148,55		
JUGO	8.610,36		
ALAITZA	10.014,50		
ARKAUTI	6.183,10		
EZKEREKOTXA	10.014,50		
ANTEZANA DE LA RIBERA	11.313,50		
OTOBARREN	8.693,85		
VILLAMADERNE-BELLOJÍN	6.806,25		
LABRAZA	8.103,75		
GEREÑU	10.014,50		
GILIERNA	4.936,80		
BASABE	4.598,00		
MIÑAO GUTXIA	4.301,55		
ERENTXUN	10.014,50		
IBARGUREN	7.740,75		
GORREBUSTO	7.843,25		
FRESNEDA	3.291,20		
CORRO	5.190,90		

KONTZEJUA	AURREKONTUA (BEZA BARNE)	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	OHARRAK
IGAY	9.075,00		
QUINTANILLA DE LA RIBERA	9.075,00		
RIBAGUDA	9.075,00		
VALLUERCA	4.452,80		
LAMINORIAKO ERRET HARANA	9.228,00		
JAUREGI	10.014,50		
ZUHATZU	6.630,80		
LEGUTIO	5.948,04		
ULLÍBARRI-GAMBOA	8.913,75		
TRESPUENTES	10.398,22		
OTEO	6.050,00		
LUNA	7.260,00		
GATZAGA BURADON	4.455,80		